

ARRITXULO aterpetxean Oiartzungo Aiako Harria Parke Naturala ezagutu eta naturaz gozatuko dute.

Ez da pre-matrikulaziorik egongo. Matrikula egiterakoan, txanda aukeratu, parte hartzaileen datuak bete eta inskripzioa konfirmatzean ordainketa egin beharko da.

UDALEKUEN FAKTURA

Beharrezkoa izanez gero, hurrengo e-postaren bitartez faktura eskatu daiteke: udalekuakarritxulo@gmail.com

Txanda bukatu baino lehen, norbaitek udalekutik alde egin beharko balu, guraso edo tutorearekin batera izan beharko litzateke. Hau horrela ez balitz eta beste pertsona bat haurraren bila etorri ezker, aurretik idatziz tutorearen baimena jaso beharko genuke.

DIETA BEREZIAK, ALERGIAK, etab.

Gure Aterpetxean etxeko janaria eta sanao prestatzen da eta dieta bereziak prestatzera ohituta gaude.

Hala ere, matrikula orrietan (behar izanez gero, orriaren atzeko alde erabiliz) behar berezi hauen zehaztapen guztiak idaztea komeni da, guk aldeztu aurretik jakin dezagun eta janariak ondo prestatzeko.

*Medikuaren preskripzioan agertzen diren botikak bakarrik administratuko dira umeei.

MEDIKU ARRETA

Gertatu litezkeen istripu edo gaixotasunekin, protokoloa jarraituko litzateke eta Oiartzun osasun zentzora joango ginateke.

BISITAK UDALEKUETAN

Udalekuetan zehar debekatuta daude bisitak, dinamika mozten baitute.

TELEFONO DEIAK

Ez dira deiak baimenduak egongo. Dena den, udalekuan zehar, arazoren bat edo urgentziaren bat egonez gero, familia udalekuen antolatzaileekin kontaktuan jarri ahalko dira telefonoz, eta alderantziz.

ARGAZKIAK

Matrikulan, argazkiak atera eta hauen erabilpenerako baimena eskatzen dizuegu, udalekuen oroigarri polit bat izateko. Argazki guzti hauek posta elektronikoz bidaliko dizkizuegu eta Facebook-eko profilean jarriko ditugu.